

## FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU “Bordari” (1910-1983)

Otsailaren 3an, San Bladi egunez, hil zen Hondarribian Fernando Artola “Bordari” euskal idazle ospetsua eta Euskaltzaindiko urgazlea. Hondarribian bertan sortua zen 1910. urteko otsailaren 14an.

Aspalditik eri zen, ebakuntza ere izan zuen baina gaitzak menderaturik, poliki-poliki itzaliz joan zen. Igazko uztailaren 16an, bere sorterriaren omenaldi apal baina maitasunez beroa jaso zuen, eta, besteak beste, han ginen hizlari euskaltzainburuordea eta ni. Tamalez, eritasunak ordurako bere partea egina zuen eta Fernando berari ezinezko bihurtu zitzaion omenaldi egun hartan presente egotea.

Fernandok, bere lehen ikastaroak Hondarribian bertan egin zituen, gero Irungo Lasalletarretan jarraitzeko. Hemen ezagutu zuen Anai Iñaki Olabeaga irakaslea (Bordari baino bederatzita urte zaharragoa, eta egun berdinean Donostian hila, eta bihamarnez, ordu berean, bataren hiletak Hondarribiako Santa Maria parrokian eta bestearenak Irungo Lasalletarren kapera), nonbait hark txertatu zuen lehenik euskaltzaletasuna Bordariren baitan; baina, baita ere, 1925. urtean Hondarribian ospatu ziren Euskal Lore-jokoak ere eragin handia izan zuten beregan. Hamazazpi urterako bizitzaren ikasketa latzetan sartu zen, bulego laneri ekinaz, langileriaren arazoez kezkatuaz eta parrokiako Kerizpe elkartean irakurketak eta antzerki saio gertaketak eginaz. 1931. urtean ordea, Hondarribiako Batzokia idekitzeaz, Fernando Eusko-Alderdiaren bazkide sartu zen eta inguruko lagunak bultzaturik, *El Día* eta *Argia*-n idazten hasi zen.

Anaiartereko gerra etortzeaz mugaz bestaldera jo zuen eta zenbait lan desberdinean aritu ondorean Belokeko beneditarretan kokatu zen inprimeria lanetan. Han ezagutu zituen ihesik joandako euskaltzale batzuk eta orduan sartu zitzaion euskal literaturgintzarako zioa. 1940.ean itzuli zen Hondarribiara eta handik zortzi bederatzita urtera hasi zen *El Diario Vasco* egunkarian erdaraz euskal gaien zabalkundez idazten “Bordari” izenpean. Gerorako, irratiz euskaraz ere aritu zen. Euskarako lehen irratsaioak aipatzean gogoan edukitzekoa da bere izena. Baina, batez ere euskaraz idazteari gogor eman zion eta sari aipagarriak ere jaso da. Olerkigintzan eta sariketara aurkeztean Claudio Sagarzazu “Satarka” izan zuen bultzatzaile.

Gerraondoko literatur ekintzak asko zor badio, bertsolaritzak ez gutiago. Gipuzkoan, bertsolari Txapelketen berbiztzaileen artekoa genduen, saio asko antolatua, gai jartzaile aparta, eta epai-mahaikoei txapeldun hautaketarako bide hobeak proposatzean asmatu zuen orain “kartzelakoa” deritzagun saioa, bertsolariak entzun ezindako toki batean sartu ta banan-bana gai berdina kantatzera atereaz egin ohi dena.

Aipatu ditugun gerra aurreko publikazio eta Hondarribian jaietan ateratzen ziren programa haiez gainera, euskaraz, beste honako hauetan idatzi du: *Euzkogo-goa*, *Zeruko-Argia*, *Egan*, *Aránzazu*, *Olerti*, *Euskera* eta abar.



Horrez gainera, erdaraz ere badu hor-hemen lan sakabanaturik, *El Diario Vasco*-n garai batean idatzi zituen gai pizgarriez gainera. Historia gaietaz ere aski jantzia zen eta bere herkide Florentino Porturen *Santuario de Guadalupe-Guadalupe'ko Ama* (1978) deritzan monografiari hitzaurrez egin zion "A modo de comentario" hartan agertu zuen hura dugu bere erudizio eta jakintzaren neurgarri.

Hala ere, Bordariren lanik gehienak eta hoberenak igazko urtean argitaratu zituen *Bakoitzak berea* (1982) izenburuz bi tomotan bilduak: bere bizitzaren zertzeladak hitzaurrez dituela, ipui, kondaira, gertakari, antzerki bat (bakarrizketazkoa) eta olerkiak. Olerkien sailean sartua da lehenago argitaratu zuen *Goraintzi* (1968) deritzan ere. Horrez gainera, bere anai Rafaelekin elkarlanean burutu zuen eleberri gisara idatzitako oroitzapenen liburu bat, *Aritz beraren adarrak* (1982).

Fernandok, etsimenduz eraman zuen bere eritasun luzea, berekiko fede sendoan oinarriturik eta neurri handi batean pozik, eternitateko zorionean Jainkoaren aurpegi ikusteko eta bere bizitzako Henriette maitearekin laster elkartzeko esperantzan, olerkiz azaldu zuen bezala:

*Eta  
Orain banoa.  
Gainean dut epea  
Zer poza nerea!  
Banoa:  
Ikustera ene begiz  
Jainkoa  
ta  
Maitea!*

J. S. M.